

## Mundu zikina



INMA ERREA CLEIX  
IDAZLEA EDO

**K**ostata onartzen dugu, baina mundu zikin batean bizi gara. Pantailetan mundu garbi samarrak ikusten ditugu –eta ikusi nahi ditugu, halakoetara ohituta–, film historikoetan, koroak eta jantzi dotoreak ia beti daude aratz eta distiratsu, narrazio beltzetan erakusten diguten gai zikinena odola da eta istorio fantastikoetan ikusgarritasunak ezkututzen ditu balizko lizunak. Egia da horietan guztietan badela itxura zikin-neko jendea, baina pertsonaia *satsuen* kuotak jende txiroa eta gaiztoa irudikatzen baliatzen dira gehienetan. Eta iragarkietan, nekez ikus daiteke zerbait edo norbait zikin (ez bada garbitzeko gailu edo produktu bat saltzeko).

Hala ere, guztiok dakigu gure egunerokoa ez dela pantailetan bezain txukuna, pantailetakoa xahutasuna imitatzen saiatuta ere.

Egia da, bestalde, albistegietan bestelako *zikinkeriak* erakusten dizkigutela –segur aski gure beldurrak fresko eta mardul irauarazteko–: gerrak, bortizkeria, goseteak, hondamendiak... Baina halakoak ez ditugu sailkatzen zikinkeria gisa gure burmuinetan, besteak beste, ezin ditugulako ukitu eta ez gaituztelako ukitzen –etxean sortzen den hautsa edo bestelako zikingarriak ez bezala–.

Oraindik *Hondamendia* ikusi izanaren eraginpean –non estetika, edukiarekin

bat eginik, garbiki zikina baita, ikusleak deseroso sentiarazteraino–, hasi naiz pentsatzen zikintasuna zer den. Eta ohartu naiz zaila dela konklusio argiak ateratzea.

Susmoa dut, ordea, zikin, nazkagarri, jotzen ditugula gizakien eta oro har izaki bizidunen oinarritzko beharrei lotutako materia organikoak –adibidez, gorpuztaren ziloei darizkien substantziak–, eta ez zaizkigula hain higuigarri egiten guk sortutako hondakin gero eta sofistikatuagoak, gure bistatik aparte utziz gero behinik behin –adibidez, zaborte-gietan–.

Batzuetan, arteak eta artistek –bati bat ikuskizun handien zirkuituetatik aparte ari direnek– asmatzen dute erakusten jende eta jendartearen tatzak. Behin kontatu zidaten: artista plastiko batek, ez dut gogoan nork, sardina fresko zilarkarekin osatu zuen svastika erraldoi bat erakusketa batean –non usaina gero eta jasanezinago bilakatu baitzen sardinek freskotasuna galdu ahala–.

Axuten *Hondamendia* antzezlanari antzeko ahalmena ikusi diot gure kontzientziak iratzartzeko. Zaldibarko zarama-hondamendia du abiapuntu, baina harago doa, hedabideetan, gizarte- eta botere-egituretan eta giza-harremantetan pilatzen dugun zakarra gure aitzi-nean paratuta. ●

## Norbera eskubide



EDU ZELAIETA ANTA  
IRAKASLEA ETA  
IDAZLEA

**D**elacroix-en *La Liberté guidant le peuple* (*Askatasuna, herriaren gidari*) koadroa ageri da giza eskubideen sarreran, Euskarazko Wikipedian. Ederki ekarria dago, nire iritziko, pintorearen irudi erromantikoa: askatasunarekin estuki lotuak dira giza eskubideak. Alabaina, askatasuna zer den ziklikoki galdetu beharreko auzia iruditzen zait. Sasoi orotan.

Gaur den egunean, adibidez, ez dakit libertatea herriaren gidari ote den. Duda handiak ditut. Diskurtso-praktika garai-kideak ikusita, beharbada hobe genuke esatea libertatea norbanakoaren gidari dela; are eta gehiago, norbera dela liber-

tatearen gidari. Hartara, zenbait aldarrikapen lekuko, norbera da gako askatasunaren eta, ondorioz, eskubide batzuen formulazioan.

Euskararen arloan ere badakusat arestiko kulturaren arrastorik. Alde batetik, hizkuntza ez ikasteko eskubidea aldarrikatzen dute zenbaitzuek, harro eta ozenki. Beste alde batetik, hizkuntzaren erabilera askea aldarrikatzen dute beste batzuek: egoera soziala edozein dela ere, etxeko/herriko euskararen aritzeko eskubidea. Utikan besteak, euskararen herria edota komunikazio gaitasunak! Utikan, funtsean, *modu naturalean* –ahaleginik gabe– norberari eman ez zaiona! ●